

# IRAKASLEENTZAKO **OINARRIZKO AZALPENAK**

Nola erabili  
Wikipedia  
irakasteko  
tresnatzat



EUSKAL  
**WIKILARIEN**  
KULTURA ELKARTEA

Wikipedia online entziklopedia libre bat da, edonork edita dezakeena. Munduko webgune bisitatuenen artean bosgarrena izanik, unibertsitate ikasle gehienek erabiltzen duten Wikipedia baliabidetzat. Era berean, mundu osoko irakasle askok erabili dute Wikipedia irakaskuntzako tresnatzat beren unibertsitateko ikasgeletan. Gida honetan, haien esperientziak bildu ditugu, zure ikasgelean Wikipedia nola erabil dezakezun erabakitzen laguntzeko.

Gida hau hiru zatitan antolatu dugu:

## **Eskolako lanen plangintza**

Ikasi Wikipediako funtsezko politikak, eta eskuratu informazio gehiago eskolako lanak diseinatzeari buruz, ardatz gisa hartuta ikasleei eskatzea Wikipediako artikulak idatz ditzatela eskolarako.

## **Ikastaldiaren barruan**

Ikas ezazu ea zein den Wikipediako artikulua on baten egitura, ea ikasleek nola aukeratu beharko lituzketen hobetuko dituzten artikulak, ea zer iradokizun dauden Wikipediako laborategi saio batean lantzeko gaiei buruz, eta ea nola jardun Wikipediako editoreen komunitatearekin elkarrekintzan.

## **Ikastaldiaren ondoren**

Ikus ezazu beste irakasle batzuei baliagarri izan zaien Wikipediako lanen ebaluaziorako egituraren adibide bat.

# Funtsezko politikak ulertzea

Wikipedia 2001ean abiatu zenetik, editore boluntarioen —wikilarien— komunitateak funtsezko hainbat politika garatu ditu, Wikipedia ahalik eta fidagarriena eta erabilgarriena izan dadin. Zure ikastaldean sartzen duzun edozein lanek politika horiei jarraitu behar die. Funtsezko politika horiek ulertzea beharrezkoa da zuk garatutako eskolako lanak, zure ikaste helburuak betetzeaz gainera, Wikipedia hobetuko duela ziurtatzeko.

## Eduki librea

«Ikasleek Wikipedian sartzen duten lana **eduki librea** da, eta ondare komunaren parte bihurtzen da. Edonork edita eta berrerrabil dezake, lizentzia libre batekin. Wikipedian idatzitako guztiak originala izan behar du oro har. Wikipediako irizpideek debekatu egiten dute iturri gehienetatik kopiatu eta itsastea.»



**User:Lechatjaune** (azken bi esaldiak, Xabier Armendaritzek moldatuak, zehatzago izan daitezten) CC BY-SA 3.0 argazkia.  
Egilea: User:Lechatjaune



## Iturri fidagarriak

«Wikipediako **iturri fidagarrienak** hirugarren alderdietako iturriak dira, datuak egiaztatzeagatik ospea irabazi dutenak, adibidez: argitaletxe akademikoek argitaratutako liburuak, parekoek berrikusitako aldizkari akademikoak, eta nazioarteko egunkariak. Ahal bada, ez aipatu blogak, prentsa oharak, eta hain formalak ez diren beste iturri batzuk. Ikasleek ikuspegi nabarmenak agertzen dituzten iturriak erabili beharko lituzkete, eta ez agerpen bakarreko ikerlanak edo bazterreko teoriak dituzten lanak.»

**User:Mariana Jó**  
CC BY-SA 3.0 argazkia. Egilea:  
User:Mariana Jó



## Ikuspuntu neutrala

«Wikipediako guztia **ikuspegi neutraletik** idatzi behar da. Wikipedia ez da ez da argumentatzeko edo ideia bat aldezteko tokia. Informazio guztia zehaztasunez eta alderdikierarik gabe aurkeztu behar da, iturri fidagarriek argitaratutako ikuspegi nabarmen guztiak deskribatuta. Gai bati buruzko iritziak azaldu behar zenituzke, baten edo bestearen alde egin gabe.»

**User:GorillaWarfare**  
CC BY-SA 3.0 argazkia.  
Egilea: User:GorillaWarfare

## Nabaritasuna

«**Nabaritasuna**ren kontzeptua erabiltzen dugu ea gai batek artikulu bat merezi duen erabakitzeko. Oro har, gai bat nabaria dela jotzen dugu, baldin hirugarren alderdi batek gaiari buruzko argibideak eman baditu iturri fidagarrietan. Ikasleak artikulu berriak hasten ari badira, gaiari buruzko iturri fidagarri independente batzuk aurkitu beharko lituzkete, hasi baino lehen.»

**User:Mohamed Ouda**  
CC BY-SA 3.0 argazkia. Egilea: User:Faris knight

## Fede ona

«Wikipedian editatzen duten guztiak, ikasleek barne, besteak fede onez ari direla uste izan behar dute, besteekin elkarrekintzan dabiltzanean. Horrek esan nahi du errespetuz tratatzen dugula elkar, eta uste izaten dugula denok ari garela helburu bera hartuta: Wikipediako edukia hobetzea. Gizalegez jokatzeari estimatzen dugu, gai eztabaidatsuei buruz elkarrekintzan ari garenean. Gogoan izan editatzen den edukiaz eztabaidatu behar dela betiere, eta inoiz ez editatzen ari den pertsonaz; eta ez egin eraso pertsonalik.»

**User:Mike Christie**  
CC BY-SA 3.0 argazkia. Egilea: User:Mike Christie

# Zure eskolako lana diseinatzea

Wikipediak eskolako lanetarako aukera ugari eskaintzen ditu, zure ikaste helburuak oinarri hartuta. Kontuan har ezazu ea zein diren zure ikasleen gaitasun multzoak, ea zenbat ekarpen nahi duzun ikasleek Wikipediari egitea, eta ea zenbat denbora duzun, ikasturtean, eskolako lanari emateko.

Gida honetan, irakasgaiari lotutako gai bati buruz artikulua idazteko lana ikasleei nola eskatu azaltzen dugu. Izan ere, eskolako lan hori da irakasleek gehien erabiltzen dutenetako bat.

1

## Eskolako lana: Idatzi artikulua bat

«Idatzi artikulua bat» lanean, ikasleei eskatuko diezu lehenik dagoen artikulua bat handitzea edo artikulua berri bat sortzea, irakasgaiari lotutako gai bat hartuta. Iturri fidagarriak erabiliz, ikasleek gaiari buruzko informazioa dokumentatuko dute. Sarritan, irakasleek eskolako lan hau azaltzen dute offline dagoen txosten analitiko luzeago batekin batera; ikasleen Wikipedia artikuluek haien txostenetako literatura-aztertzearen atalak osatzen dituzte.

### Ordezko lanak:

**Itzuli artikulua bat.** Hizkuntza irakasleentzat, oso eskolako lan praktikoa izaten da hori. Zure ikasleek har ditzatela ikasten ari diren hizkuntzako Wikipediako kalitate handiko artikulua, beren ama hizkuntzako Wikipedian oraindik ez daudenak, eta itzul ditzatela artikulua horiek beren ama hizkuntzara.

**Gehitu irudiak artikulua bati** Zure ikasleak multimedien arloan trebeak badira, bide hori ona izan daiteke Wikipediara ekarpena egiteko, testuak landu beharrean. Iraganean, ikasleek beren inguruko monumentuei argazkiak egin izan dizkiete, haien irudirik ez zuten artikuluetarako; infografiak diseinatu izan dituzte, Wikipedian kontzeptuak irudiztatzeke; edota bideoak sortu izan dituzte, ikus-entzunezkoen bidez adieraztearren artikulua testuaren bidez deskribatzen duena.

**Zuzenketak egitea.** Wikipedia erabiltzaileek sortutako baliabide bat denez, teklatze akats ugari aurkituko dituzu, bai eta idazkera hobetzeko premia handiak ere. Ikasleei artikulua baten gramatika hobetu dezatela eskatzea bide ona da zuzenketa trebetasunak ikas ditzaten, eta zure diziplinan idazketa ona nola egiten den kritikoki pentsa dezaten.

## 2

### Ikaste helburuak

Ikasleei Wikipedia artikulua bat idatz dezaten eskatzeak, oro har, ondo betetzen ditu lau ikaste helburu hauek.

#### Idazte gaitasunak garatzea

Ikasleek ikasten dute nola idatzi behar den, mundu osoko online biztanleen proportzio handi bat diren askotariko irakurle interesdunentzat. Are gehiago, Wikipediak egjaztagarritasunaren eta ikerlan originalik ez sartzearen gainean jartzen duen enfasiari esker, ikasleek hobeto ulertzen dute zer alde dagoen datu objektiboetan oinarritutako idazkeraren eta konbentzitzeko idazkeraren artean.

#### Hedabideak eta informazio alfabetatzea

Wikipediaren eduki-garapen garden eta lankidetzazkoari esker, ikasleek sakonago ulertzen dute informazioa nola ekoizten eta nola kontsumitzen den. Horrek ikasleei aukera bikaina ematen die, eskuragarri dauden iturriak eta haien erabilera egokiari buruz gogoeta egiteko.

#### Pentsamendu kritikoa eta ikerketa gaitasunak

Ikasleek ikasten dute Wikipedia artikulua kritikoki aztertzen, zehaztearen ea zenbateko egokitasunez lantzen duen artikulua batek gaia, baloratzearen ea zer informazio falta den, eta ebaluatzearen ea artikulua zein neurritaraino dagoen dokumentatuta iturri fidagarriekin. Testuinguru zabalagoan, Wikipedia artikulua ebaluatzea lagungarria zaie ikasleei, ikas dezaten nola ebaluatzen diren iturri mota guztiak, eta ez bakarrik Wikipedia. Artikulu bat baloratzeke eta zer informazio falta den erabakitzeko prozesuaren oso antzekoa da ikerketa akademikoan funtsezkoa den literatura-aztertzearen prozesua.

#### Lankidetzak

Ikasleek zuzenean ikasten dute nola aritzen den editore aktibo boluntarioen komunitate batekin lankidetzan (komunitate horretan beren ikaskideak barne hartuta), eduki entziklopedikoa garatzeko. Askotan, beren lanari buruzko feedbacka jasotzen dute, eta edukiari buruzko adostasuna eratzearen beste editore batzuekin negoziatzen ikasten dute.

## 3

### Ikasketa programaren diseinua

Irakasle eskarmentudunek diotenez, Wikipedia editatzen arituko diren ikasleentzat funtsezkoa da eroso egotea, testuaren wikikodearekin ez ezik, komunitatearekin ere. Ikastaldiaren hastapenetan lan txikiak eskatzen badizkiegu (adibidez, behean zerrendatutakoak), errazago egokituko dira Wikipediara. Ikastaldian zehar mugarri hauek jartzen ez dituzten irakasleek, eskuarki, esperientzia txarrak izaten dituzte ikasleei jarritako lanekin.

Eginkizun erraz hauek ikasleak prestatzen dituzte Wikipediako lan luzeagoetarako, ikasleei geroago beharko dituzten trebetasunen hastapenak ematen baitizkiete.

- Ikasleek erabiltzaile orri bat sortu beharko lukete, beren buruaz esaldi bat edo bi gehituta, eta Wikimedia Commonsetik —Wikipediaren irudi biltzetik— irudi bat gehituta.
- › Anima itzazu ikasleak, eurek egindako argazki bat Wikimedia Commonsera igo dezaten.
- Eska iezaezu ikasleei hobetu dezatela irakasgaiari lotutako artikulua batean esaldi bat edo biren argitasuna.
- Ikasleek irakasgaiko irakurgai bat erabil lezakete artikuluan erreferentzia bat gehitzeko.
- Behin zer gairi buruz idatziko duten hautatuta dutenean, ikasleek mezu bat idatzi behar lukete artikulua horren eztabaida orrian, iturri batzuk proposatzeko.
- Eska iezaezu ikasleei egin asmo dituzten aldaketen eskema bat eztabaida orrian, idazten hasi baino lehen.

Behin ikasleek urrats horiek egin dituztenean, erosoago egongo dira Wikipedian lan egiten. Ikasleek lana geroko uzteko joera dute; beraz, hobe da urrats hauek hasierako mugarritzat erabiltzea, eta egin ditzatela artikuluan idazten hasi baino lehen.

---

Bada gida lagungarri bat, ikasleei honelako lanak jarri dizkieten 100dik gora irakasleek erabilitako ikasketa programa adibidezko bat eskaintzen duena. Hemen deskarga dezakezu gida: <https://education.wikimedia.org/syllabus>

# Artikulu bat aukeratzea

Ikasleek zer artikulu landu behar dituzten erabakitzea lan zaila izan daiteke. Irakasle batzuek artikulu zerrenda bat egiten dute, eta ikasleei eskatzen diete zerrendatik aukeratzeko; beste batzuek, ikasleei eskatzen diete proposa ditzatela gaiak. Nahi baduzu ikasleek artikulu berriak sortzea, lehendik dauden artikuluak hobetzea baino, egiazta ezazu irakurri dutela Wikipediak nabaritasunari buruz duen politika, eta seguru dakitela gaiak nabariak direla, hau da, zure arloko izen oneko hirugarren alderdien iturrietan ondo azalduak.

Zer behar du Wikipediako artikulu batek ona izateko? Zeuk eta zure ikasleek ondo ikas ezazue zuen diziplinako Wikipedia artikulu tipikoaren egitura; horrela, ikasleek jakingo dute zer motatako atalak jarri beharko lituzketen. Ikasle gehienek segur aski lehenago inoiz ez dute pentsatu entziklopedia artikulu baten egiturari buruz. Beraz, garrantzitsua da eskolan minutu gutxi batzuk ematea entziklopedietan informazioa nola egituratzen den argitzeko.

## Egin behar direnak

- Eska iezaezue ikasleei aukera dezatela diziplinan ondo ezarrita dagoen gai bat, Wikipedian oraindik agerpen ahula duena. Gai horretaz literatura ugaria baldin badago, baina informazio horren zati txiki bat baino ez badago Wikipedian, horixe da lanerako egoera onena.
- Bila itzazu «zirriborroa» marka duten artikuluak. Wikipediako bilaketa laukian «Kategoria:Zirriborroak» idatzita eta kategoria horren barruan zure diziplinako azpikategoriara joanda aurkituko dituzu.
- Artikulu bat sortu baino lehen, bila itzazu artikulu izenburuaren hainbat aldaera. Askotan, gai bat dagoeneko beste izen batekin landuta dagoela aurkituko duzu.

## Egin behar ez direnak

- Ez saiatu hobetzen oso gai zabalak dituzten artikuluak (esaterako, «Zuzenbidea») edo Wikipedian dagoeneko kalitate handikoak diren artikuluak («Artikulu nabarmenduak»). Gai horiek hobetzea zailagoa da.
- Ez saiatu hobetzen oso eztabaidatsuak diren gaiak, hala nola prostituzioa edo terrorismoa. Gai eztabaidatsuek maiz liskarrak dakartzate Wikipedian. Horrelako gaien ordez, haien azpigaien artikuluak lantzerantz animatu beharko genituzke ikasleak.
- Ez hartu literaturan gutxi landu diren gaiak. Ikasleentzat zaila izango da Wikipediako artikulu bat sortzeko aski iturri fidagarri ematea.
- Ez hasi artikuluak saiakera kutsua duten izenburuekin, hala nola «Arrisku handiko hipoteken oraintsuko krisiak Euskal Herriko eta munduko ekonomian izan dituen eraginak»; horren ordez, «Arrisku handiko hipoteken krisia» izan beharko litzateke izenburua. Wikipedia entziklopedia bat da, ez da saiakeretarako tokia.



# Wikipediako artikulu baten ohiko egitura

Wikipedia artikulu batek, kalitatezkoa izango bada, beharrezkoak ditu egitura ondo definitu bat, eduki entziklopedi-koa, eta komunitate aktibo bat.

## Sarrerako atala

Sarrerako atalak artikuluan landutako funtsezko puntuak laburbildu behar lituzke. Gogoan izan ezazu sarrerako atalak ez duela atalbururik. Lehenengo esaldiak artikularen gaiaren definizioa eman beharko luke.

## Infotaula

Artikulu askok infotaula (informazio taula) bat dute, gaiaren funtsezko elementuak deskribatzeko. Bila ezazu zurearen antzeko gai bat duen artikulatu bat, eta kopia ezazu infotaularen kodea, zure artikulua ere infotaula izan dezan.

## Artikuluaren gorputza

Atalburuek argi ezartzen dituzte artikuluari dagozkion atalak. Ondoko irudian ageri den artikularen kasuan, gorputzak urakanaren historia eta eraginak azaltzen ditu.

## Irudiak

Lizentzia librean duten irudiak Wikipedia artikuluetara gehitu daitezke Wikimedia Commonsetik.

## Eranskinak eta oin oharrak

Edukiaren ondoren datoz atal hauek: artikuluan erabilitako iturriena («Erreferentziak»); zerikusia duten Wikipediako artikuluen («Ikus, gainera»); eta irakurleek informazio gehiago nahi badute kontsulta ditzaketen beste webguneen zerrendarena («Kanpo loturak»).

Webpage Screenshot

WIKIPEDIA The Free Encyclopedia

Contents

- Main page
- Contents
- Featured content
- Current events
- Random article
- Donate to Wikipedia
- Wikipedia Shop

Interaction

- Help
- About Wikipedia
- Community portal
- Recent changes
- Contact Wikipedia

Toolbox

- Print/export

Languages

- Castellà
- Deutsch
- Español
- Euskara
- Français
- Português
- Simple English
- 中文

Article Talk

Read Edit View history Search

## Hurricane Irene (2005)

From Wikipedia, the free encyclopedia

*This article is about the Atlantic hurricane of 2005. For the 2011 storm, see Hurricane Irene (2011). For other storms of the same name, see Tropical Storm Irene (disambiguation).*

**Hurricane Irene** was a long-lived Cape Verde-type Atlantic hurricane during the 2005 Atlantic hurricane season. The storm formed near Cape Verde on August 4 and crossed the Atlantic, turning northward around Bermuda before becoming extratropical southeast of Newfoundland. Irene persisted for 14 days as a tropical system, the longest duration of any storm of the 2005 season. It was the ninth named storm and fourth hurricane of the record-breaking season.

Irene proved to be a difficult storm to forecast due to oscillations in strength. After almost dissipating on August 10, Irene peaked as a Category 2 hurricane on August 16 before being absorbed by a larger extratropical system late on August 18. Although there were initial fears of a landfall in the United States due to uncertainty in predicting the storm's track, Hurricane Irene never approached land and caused no recorded damage. However, swells up to 8 ft (2.4 m) and strong rip currents resulted in one fatality in Long Beach, New York.

### Contents

- 1 Meteorological history
- 2 Impact, records and naming
- 3 See also
- 4 References
- 5 External links

### Meteorological history

A vigorous tropical wave moved off the west coast of Africa on August 1, initially weakening due to cooler sea surface temperatures. It moved westward and passed near Cape Verde, where convection started to increase. The system became more organized and developed into Tropical Depression Nine on the afternoon of August 4, 600 miles (1100 km) southwest of the Cape Verde Islands.<sup>[1]</sup> Early on August 5, the depression abruptly turned to the northwest into an area of higher wind shear, causing some computer models to predict that the depression would dissipate, while others predicted steady strengthening. The sudden threat to the storm's existence prompted National Hurricane Center (NHC) forecaster Dr Lixion Avila to comment, "How little we know about the genesis of tropical cyclones."<sup>[2]</sup> Despite the unfavorable conditions in its vicinity and its poor organization, Tropical Depression Nine continued to strengthen, becoming Tropical Storm Irene on August 7.<sup>[1]</sup>

Because Irene was in an environment laden with dry air and high shear, it soon weakened to a tropical depression, on August 8.<sup>[1]</sup> On the morning of August 10, as it was passing north of the Lesser Antilles, Irene nearly dissipated into a remnant low, but forecasters predicted with "very low confidence" that the storm would survive.<sup>[3]</sup> However, warmer waters and less wind shear allowed Irene to become gradually more organized while south of Bermuda, and it became a tropical storm once again early on August 11.<sup>[1]</sup>

Due to uncertainties about how the region's subtropical ridge would interact with Irene, the models continued to give unclear signals of the storm's future. Some of the models predicted that Irene would make landfall in North Carolina, while others continued to anticipate that Irene would dissipate.<sup>[4]</sup> The uncertainty ended when a weakness in the subtropical ridge allowed Irene to turn sharply northward, which caused the storm to pass midway between the Outer Banks of North Carolina and Bermuda on August 15. Soon after, upper-level shear weakened greatly, and Irene rapidly intensified, first to a hurricane, then to its peak strength as a 105 mph (170 km/h) Category 2 hurricane on the afternoon of August 16, while located 350 miles (560 km) northeast of Bermuda; at the same time it also attained minimum pressure of 970 mbar.<sup>[1]</sup> Though NHC meteorologists thought it was likely that Irene would become a hurricane, they were not expecting an intensification of such a magnitude.<sup>[5]</sup>

Irene entered a region of increased wind shear and began to weaken, and as a result it was downgraded to a tropical storm early on August 18, when it was 520 miles (830 km) south of Cape Race, Newfoundland. Tropical Storm Irene finally became extratropical on August 18 after moving over much cooler waters, and was absorbed by a larger extratropical system later that day.<sup>[1]</sup> Irene lasted for 14 days as a tropical system, the longest duration of any storm of the 2005 season.<sup>[6]</sup>

### Impact, records and naming

As Hurricane Irene stayed well away from land, no coastal warnings or watches were issued for it. Despite Irene's long life there were no reports of tropical storm force winds affecting ships. There were no damage or fatalities as a result of Irene.<sup>[1]</sup> However, the hurricane generated strong waves and increased the risk of rip currents along the East Coast of the United States. Many beaches in New Jersey restricted swimming activities, and lifeguards at one beach performed more than a hundred rescues over a three-day period.<sup>[7]</sup> Waves along the coastline of New York reached 4 to 8 ft (1.2 to 2.4 m).<sup>[8]</sup> On August 14, a 16-year-old boy drowned after being caught in a rip current near Long Beach, New York on August 14.<sup>[8][9]</sup> His body was recovered on August 16 after washing ashore.<sup>[8]</sup>

When Tropical Storm Irene formed on August 7, it was the earliest date for the formation of the ninth tropical storm in an Atlantic hurricane season, beating the previous record held by a storm in the 1936 season by 13 days. This storm also marked the fifth occasion the name "Irene" had been used to name a tropical cyclone in the Atlantic.<sup>[6]</sup> Due to the lack of effects on land from Hurricane Irene, the name was not retired by the World Meteorological Organization and was reused in the 2011 Atlantic season.

### See also

- List of 2005 Atlantic hurricane season storms

Tropical cyclones portal

### References

- <sup>1</sup> <sup>a</sup> <sup>b</sup> <sup>c</sup> <sup>d</sup> <sup>e</sup> <sup>f</sup> <sup>g</sup> National Hurricane Center. "Tropical Cyclone Report: Hurricane Irene" (PDF). NOAA. Retrieved April 24, 2006.
- <sup>2</sup> <sup>a</sup> National Hurricane Center. "Discussion for Tropical Depression Nine, 11:00 a.m. EDT, August 05 2005" (PDF). NOAA. Retrieved April 24, 2006.
- <sup>3</sup> <sup>a</sup> National Hurricane Center. "Discussion for Tropical Storm Irene, 5:00 a.m. EDT, August 10, 2005" (PDF). NOAA. Retrieved April 24, 2006.
- <sup>4</sup> <sup>a</sup> National Hurricane Center. "Discussion for Tropical Storm Irene, 11:00 a.m. EDT, August 11, 2005" (PDF). NOAA. Retrieved April 28, 2006.
- <sup>5</sup> <sup>a</sup> National Hurricane Center. "Discussion for Tropical Storm Irene, 5:00 p.m. EDT, August 14, 2005" (PDF). NOAA. Retrieved April 24, 2006.
- <sup>6</sup> <sup>a</sup> <sup>b</sup> <sup>c</sup> National Hurricane Center; Hurricane Research Division; Atlantic Oceanographic and Meteorological Laboratory (April 2012). "Atlantic hurricane best track (HURDAT)" (PDF). United States National Oceanic and Atmospheric Administration's Office of Oceanic & Atmospheric Research. Retrieved 2012-04-19.
- <sup>7</sup> <sup>a</sup> Associated Press (August 16, 2005). "Hurricane Irene Affecting Jersey Shore" (PDF). 6ABC. Retrieved May 10, 2006.
- <sup>8</sup> <sup>a</sup> <sup>b</sup> <sup>c</sup> Richard Weir and Michael White (August 16, 2005). "Lost Boy's Body Found On Shore" (PDF). New York Daily News. Retrieved December 29, 2009.
- <sup>9</sup> <sup>a</sup> "NCCD Event Report: New York Rip Current" (PDF). National Climatic Data Center. 2005. Retrieved April 13, 2009.

### External links

- National Hurricane Center's archive on Hurricane Irene (PDF)
- National Hurricane Center's Tropical Cyclone Report on Hurricane Irene (PDF)
- Photo gallery of surf from Hurricane Irene in North Carolina (PDF)
- NASA article on Irene's rainfall (PDF)

### Tropical cyclones of the 2005 Atlantic hurricane season

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	Saffir–Simpson Hurricane Scale
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	TD TS C1 C2 C3 C4 C5
22	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII	Ec	22

Book Category Portal WikiProject Commons

### Rate this page

What's this? View page ratings

# Wikigintzaren oinarriak ikasleei irakastea

Eskoletako lehenengo asteetan, gomendatzen dizugu ikasleei eman diezaiezula Wikipediari buruzko oinarrizko ezaguerak, besteak beste: nola editatzen den, eta Wikipedian erabili beharreko idazkera zertan ezberdintzen den eskolako ohiko saiakera testuetatik.

Astia baldin baduzu, eraman itzazu ikasleak ordenagailu gelara, eta egizu wikikodea nola erabiltzen den azaltzeko saio praktikoa. Horrela, ikasleek zuzenean ikusiko dute nola gauzatzen diren benetako edizioak, akatsak egiteko toki seguru bat izango dute, eta unean bertan egin ahal izango dituzte galderak. Horrelako saio praktikoei ordu bate edo bi iraun ohi dute.

Wikikodearekin eroso sentitzen bazara, zeuk eman dezakezu saio praktikoa. Bestela, tokiko wikilariak ekar ditzakezu; edo zure unibertsitateko Wikipedia aditua, zure unibertsitateak halakorik baldin badu.

## Landu beharreko alderdiei buruzko iradokizunak

- Letra lodiak eta etzanak jartzea
- Nola sortu atalburuak
- Nola editatu azpiatalak
- Nola sortu zerrenda buletdunak eta zenbakituak
- Nola sortu loturak
- Nola sortu erreferentziak
- Nola sortu proba orri bat
- Zertan bereizten diren artikulua orriak, eztabaida orriak eta erabiltzaile orriak
- Eztabaida orrien erabilera

Onena da ikasleek beren erabiltzaile kontuak sortuta izatea saio praktikora etorri baino lehen. Horrela, Wikipediak erabiltzaile izenei buruz duen araubidea irakurri ahal izango dute, eta pentsatu ahal izango dute zein neurritaraino jardun nahi duten anonimoki Wikipedian (gainera, horrela ez da arazorik izango denbora laburrean toki bakar batetik erabiltzaile kontu ugari sortzean indarrean jartzen diren mugapen automatikoei).

### Zertan bereizten den Wikipediako artikulua eskolako saiakera lan batetik

Hona hemen Wikipedian idaztean ikasleei gehixeago pentsaraziko dieten zenbait alderdi:

**Datu soiletan oinarritua da, ez du konbentzitzeko helburua.** Argudioak eman beharrean, ikasleen lana izango da gaiari buruz dagoen informazioa deskribatzea, iturri fidagarriak aipatuz.


**Tonu formal eta hizkuntza ulerterraza.** Artikuluak tonu formalarekin idatzi behar dira, baina erraz ulertzeko moduan. Wikipedia ez da ikasleek beren hiztegi zabala erakusteko tokia. Wikipediaren irakurleak mundu osokoak dira, eta gaiari buruz lehenago inoiz ezer jakin ez duten pertsonak irakurriko dute ikasleak idazten ari direna. Ikasleek gaiaren oinarriak garbi adierazi behar dituzte idazten duten testuan.

**Ez txertatu norbaiten esanak bere hartan jasotzen dituzten testu luzeak.** Idazkera akademikoan, iturri fidagarrietatik hitzez hitzeko aipu luzeak hartzea aldeztzen da; baina Wikipediaren arauetan jasota dago ahal den guztietan zeure hitzekin adierazi beharko zenukeela. Iturrietatik hitzez hitzeko aipuak jasotzea ontzat hartzen da, baina ikasleek saiatu behar lukete beren hitzekin testuingurua azaltzen, eta originaletik funtsezko esaldi bat edo bi besterik ez aipatzen.



# Komunitatearekin elkarrekintzan jardutea

Wikipediako komunitatearekin lankidetzan aritzea funtsezkoa da ikasleek Wikipediako lanari etekin osoa ateratzeko. Baina nola egin hori?



CC BY-SA 3.0 argazkiak. Egilea: Jelly Helm

Wikilariak elkarrekintzan jarduten dute elkarri mezuak idatziz artikuluen eztabaida orrietan edo bata bestearen erabiltzaile orrietan. Beste erabiltzaile batzuk zurekin komunikatu nahi badu, normalean mezu bat idatziko dizu zuzenean zure eztabaida orrian, edo lantzen aritu zaren artikulua eztabaida orrian. Ideia ona da mezu horien jarraipena egitea eta erantzutea.

Wikipediako elkarrekintza guztietan, besteak fede onez ari direla uste izan behar da. Hau da, kontrakoa frogatzen ez bada, denok pentsatu behar dugu beste editoreak entziklopedia hobetzeko asmoz ari direla. Horrenbestez, editore guztiak errespetuz tratatu behar dira.

Wikipedia artikuluei aldaketak egitean, espero izaten da editoreek aldaketen azalpen labur bat emango dutela edizioaren laburpenean. Edizio leihoko «Laburpena» lauki txikian azalpen labur hori jartzen duzunean (adibidez: «Ortografia zuzendu» edo «Erreferentzia bat gehitu»), besteek artikulua historia jarraitu ahal izango dute «Ikusi historia» fitxan klikatzean.

## Portaera egokia

Edozein komunitatetan bezala, Wikipediak baditu portaera egokirako jarraibideak. Hona hemen jarraibide horien deskribapen labur bat, wikilariarekin harreman ona izan dezazun:

- Uste izan ezazu fede onez dabiltzala: Uste izan ezazu beste editoreak proiektua hobetzen saiatzen ari direla. Saia zaitetz haien ikuspuntua ulertzen. Eztabaidatu. Negoziatu.
- Izan zaitetz adeitsua, eta gogoan izan ezazu zalagoa dela sarkasmo eta ironiari antzematea testuetan, aurrez aurre hitz egitean baino.

- Beti sina itzazu zure mezuak, eztabaida orrietan idazten duzunean. Horrela, besteek zer esan duzun garbi ikusiko dute. Sinatzeko, sakatu sinaduraren botoia edo idatzi lau tilet (~~~~). Horrela, automatikoki agertuko da zure erabiltzaile izena eta data.
- Entziklopediari aldaketa handirik egin nahi badiuzu, eztabaida ezazu eztabaida orrietan.
- Eztabaida ezazu artikulua edukiaz, ez editoreez. Ez egin eraso pertsonalik.

**Ikastaldiaren ondoren**

# Ikasleen lana ebaluatzea

Nola ebalua ditzakezu ikasleek Wikipediari egindako ekarpenak eta Wikipediari buruz idatzitakoa? Jarri diezun lanaren konplexutasunaren arabera, nota jartzeko irizpideak zehaztea errazagoa edo zailagoa izango da. Hona hemen beste irakasle batzuei ondo etorri zaizkien nota jartzeari buruzko irizpide batzuk, adibide gisa.

## Nota jartzeko egituraren adibidea

**% 5**  
bakoitzarentzat (x4)

Hastapenetako Wikipedia ariketetan izandako parte-hartze maila

**10%**

Eskolako blogean edo eztabaidetan izandako parte-hartzea

**10%**

Ikaskideekin egindako parekoen berrikuspenak eta lankidetzak

**50%**

Wikipediari egin dizkiozun ekarpen nagusien kalitatea

**10%**

Lan amaierako txostena

**ikaslearen nota**

## Hastapenetako Wikipedia ariketak

Ikasleek osatu al dituzte zure ikasketa programan zerrendatutako mugarrak edo urratsak (5. orrialdean aipatu dira lehenengoz)?

## Ikastaldearen bloga edo ikasgelako eztabaidak

Irakasle askok eskatzen diete ikasleei beren esperientziari buruzko blog bat egin eta manten dezatela. Astero edo bi astean behin galdera lagungarriak eginez (konparazio baterako: «Zenbateraino dira Wikipediako editoreak bere burua hautatzen duen talde bat? Zergatik?»), online komunitate entziklopediko honen inguruko gai nagusiei buruz gogoeta egiten hasten lagunduko diezu. Gainera, wikian eta wikiz kanpo notarako materiala emango dizu. Zure eskola orduetan astia baldin baduzu, eztabaida hauek bereziki emankorrak dira aurrez aurre eginda.

## Parekoek berrikustea

Ikasleek bata bestearen lana ebaluatzen dute Wikipedian, han bertan edo beste toki batean elkarrizketa eta kritikak utzita. Ebaluazio horiek hainbat gai har ditzakete, hala nola ea erreferentziak zenbateraino diren fidagarriak, ea artikulua oso ondo lantzen duen, edo ea artikulua zenbateraino dagoen ondo idatzita.

## Ekarpenen kalitatea


Irakasle askok konparazioa egiten dute, ea artikulua zer itxura zuen ikasleek landu aurretik eta ondoren, artikuluaen historia erabiliz. Hasierako bertsioa eta amaierakoa konpara ditzakezu; ikasleek egindako ekarpenak bakarrik har ditzakezu; eta ikasleek egindako aldaketak banan-banan ikus ditzakezu. Beharbada, nahiago izango duzu konparazio horiek ikasleek eurek egitea eta zuri aurkeztu beharreko idazlanean sartzea.

## Lan amaierako txostena

Eskolako lana bukatutakoan, eska iezaiezu ikasleei lan amaierako txosten labur bat idatz dezatela, Wikipedia erabiltzean izan duten esperientziari buruz. Hori baliagarria da Wikipediako proiektu labur nahiz luzeetarako. Adibidez, interesgarria izan daiteke zure ikasleei eskatzea idatz dezatela txostenaren bertsio labur bat Wikipedia editatzen hasi aurretik, zer espero duten labur azaltzeko; eta, lana bukatu dutenean, gogoeta egin dezatela ea espero zutena bete den ala ez

## Baliabide gehigarriak


### Irakasleentzat



#### Kasuen azterketa: Nola baliatzen duten irakasleek Wikipedia irakasteko

Sei herrialdeetako hamabost irakasle agertzen dira gida horretan. Bakoitzak azaltzen du nola erabili duen Wikipedia ikasgelan, edo nola jarri duen eskolako lan horren nota. Gida horren web bertsioan sartuta daude ikasketa programetara eta eskolako lanaren eskuorrietara joateko loturak.

<https://education.wikimedia.org/casestudies>



#### Ikasketa programaren adibidea

Astez asteko gida bat, «Idatzi Wikipedia artikulua bat» motako lan bat zure eskoletan sartzeko moduari buruz. Hor sartuta daude funtsezko zenbait mugari edo urrats, ikasleek

Wikipedia editatzeari hezkuntza onurarik handienak ateratzea ziurtatzeko eraginkorrak izan direnak.

<https://education.wikimedia.org/syllabus>




#### Online orientazioa: Wikipedia, irakasteko tresnatzat

Irakasle guztiak animatzen ditugu irakasleentzako online orientazioa

egitera, ikasketa programa planifikatu baino lehen. Orientazio horrek azalduko dizkizu Wikipediako kultura eta arauak, erakutsiko dizkizu editatzeari buruzko oinarrizko ezaguerak, eta Wikipediako ohiko eskolako lan bat azalduko dizu urratsez urrats.

<https://enwp.org/WP:EDUCATOR>

### Ikasleentzat



#### Ongi etorri Wikipediara

Wikipediara ekarpenak egiteari buruzko oinarrizko azalpenak: nola sortu Wikipediako erabiltzaile kontu bat, nola hasi editatzen, eta nola komunikatu beste editoreekin. Era berean, ikasiko duzu nola eboluzionatzen

duten artikuluek Wikipedian, eta nola neurtu lehendik dagoen artikulua baten kalitatea.

<https://education.wikimedia.org/welcometowikipedia>



#### Editatzeari buruzko oinarrizko azalpenak

Ikasleak animatzen ditugu online trebakuntza saio bat egitera, Wikipediara ekarpenak egiteko

oinarrizko ezaguerak urratsez urrats ikasteko.

<https://enwp.org/WP:STUDENT>

# Prest zaude Wikipediako Hezkuntza Programara batzeko?

Hezkuntza programak dagoeneko badira herrialde askotan, eta Wikimediako boluntarioak programa berriak sortzen ari dira ikasturte bakoitzean. Wikipediako Hezkuntza Programa lanean ari den herrialde batzuetan, Wikipediako enbaxadore boluntarioak prest izaten dira zuri eta zure ikasleei laguntza emateko, eskolako lanerako Wikipediara ekarpenak egiteko modu onenak ikasteko prozesuan.

Zatoz! Informazio gehiago eskuratzeko, bisita ezazu

<https://education.wikimedia.org>



Wikimedia Commons webguneko irudi guztiek CC BY-SA lizentzia dute, edo jabego publikokoak dira, bestela adierazi ezean. Hemengo edukiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentzia du (<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>), edo lizentzia horren geroztiko bertsioen bat.

Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak eta logoak, eta beste ezein erakunderenak, ez daude sartuta Creative Commons lizentzia horretan. Wikimedia Foundation, Wikipedia, Wikimedia Commons, MediaWiki, Wiktionary, Wikibooks, Wikidata, Wikisource, Wikinews, Wikiquote, Wikiversity, Wikivoyage, Wikispecies eta Meta-Wiki markatzen erregistratzen daude edo Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira.

Informazio gehiago nahi baduzu, ikus ezazu marka erregistratuei buruzko politikaren gure orria (ingelesez): [https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark\\_Policy](https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_Policy)

Lizentzia baldintzei edo marken politikari buruzko beste edozein galdera izanez gero, idatzi helbide honetara: [legal@wikimedia.org](mailto:legal@wikimedia.org)